



**ORIOK OUDALA**

**AKTA**

# Udalbatzarraren ohiko bilkura

**EGUNA:** 2012ko martxoaren 28a, asteazkena

**TOKIA:** Udalbatzarraren aretoa, udaletxean

**DEIALDIA:** Lehena

**HASTEKO ORDUA:** 20:00    **BUKATZEKO ORDUA:** 20:40

**BERTARATUAK:**

**Alkatea**

Beñat Solaberrieta Albizu

**Zinegotziak**

Jon Redondo Lertxundi, Noemi Ostolaza Arkauz, Angel del Hoyo Bravo, Lourdes Salsamendi Goñi, Eugenio Cotado Iturain, Elena Etxeberria Sedano, Jon Agirresarobe Lopetegi, Ekiñe Saizar Larrañaga, Bixente Lasa Karrikaburu, Amaia Dorronsoro Portularrume eta Jose Angel Iparragirre Alberdi.

**Idazkari-kontu-hartzailea**

Jon Carrera Jauregi

**BERTARATU EZ DIRENAK:**

Miriam Uranga Egurza zinegotziak (Orain) ez du bilkuran parte hartu, herritik kanpo dagoelako.



## Gai-zerrenda

- 1.- Irakurri eta onartzea, egoki bada, udalbatzarraren honako bilkuretako akten zirriborroak: 2012ko otsailaren 23ko ohikoa bilkurakoa eta 2012ko martxoaren 21eko ezohiko bilkura urgentekoa.
- 2.- Onartzea, egoki bada, Orioko kultur etxeko atezain lanpostuaren lanaldia aldatzea.
- 3.- Adjudikatzea, egoki bada, Orioko Udaleko Gazteria departamentuko Ametsa gaztelekua kudeatzeko zerbitzuaren lehiaketa publiko bidezko kontratazioa.
- 4.- Berrestea, egoki bada, Orioko Abaromendi kalea 38ko etxabeko 2. zenbakidun merkataritzako lokalaren salerosketako eskritura publikoa, Maider Sukia Etxeberriarekin sinatutakoa, eta Beñat Solaberrieta Albizu alkateari ahalmen zabala ematea eskritura hori sinatzeko Orioko Udalaren izenean.
- 5.- Onartzea, egoki bada, Orioko Arraun Elkartearen udal instalazioak Arraunketa eta Piraguismoko teknifikazio-zentro bat instalatzeko handitu eta berritzeko obrak exekutzeko kontratua aldatzeko espedientea.
- 6.- Behin betikoz onartzea, egoki bada, Orioko Kasko Historikoa Birgaitzeko Plan Bereziaren 3. Hirigintza Jarduketa garatzeko hitzarmen urbanistikoaren eranskina; eranskina Lurra, Promoción y Gestión SL entitate merkantilak aurkeztu du Udalaren aurrean.
- 7.- Onartzea, egoki bada, Orioko Udaleko Kontratazio Mahaia osatzea, izaera iraunkorra izango duena bere eskuduntzako kontratu guztietarako.
- 8.- Onartzea, egoki bada, Orioko Kale Nagusia 29an dauden udal jabetzapeko bi etxebizitzaren salerosketa eta alkateari ahalmen zabala ematea salerosketako dokumentu pribatuak eta eskritura publikoak sinatzeko, Orioko Udalaren izenean.
- 9.- Onartzea, egoki bada, baldintza ekonomiko-administratiboen orria eta baldintza teknikoaren orria, Orioko Arraunketako eta Piraguismoko teknifikazio-zentroaren hornidura kontratatzeke: sarreraren kontrola, intrusoen detekzioa, telebista-zirkuitu itxia eta megafonia.
- 10.- Onartzea, egoki bada, Orioko eta Igeldo-Donostia arteko errepidean ezpondak berritzeko obrak exekutzeko proiektu teknikoa eta obra horiek publizitaterik gabeko prozedura negoziatu bidez kontratatzeke baldintza administratibo partikularren orria.



- 11.- Bat egitea, egoki bada, Urola Kostako Udal Elkartearen Zuzendaritza Batzordeak 2012ko martxoaren 13an egindako ohiko bilkuran onartutako hizkuntz politika orokorrarekin.
- 12.- Bateragune epaiketari buruzko dagozkion erabakiak hartzea, egoki bada, Bildu udal talde politikoak gaiari buruz egin dituen eskarien haritik.
- 13.- Bat egitea, egoki bada, NAFARROA BIZIRIK ORION TALDEAK Nafarroako konkistari buruz (1512-2012) aurkeztu duen adierazpenarekin.
- 14.- Dagozkion erabakiak hartzea, egoki bada, 2012ko apirilaren 8an egingo den Aberri Eguna dela-eta, Orain udal talde politikoak gaiari buruz egin dituen eskarien haritik.
- 15.- Eskariak eta galderak.

## Esan-eginak

### **1.- IRAKURRI ETA ONARTZEA, EGOKI BADA, UDALBATZARRAREN HONAKO BILKURETAKO AKTEN ZIRRIBORROAK: 2012KO OTSAILAREN 23KO OHIKO BILKURAKOA ETA 2012KO MARTXOAREN 21EKO EZOHIKO BILKURA URGENTEKOA.**

Udalbatzarrak honako bilkuretako akten zirriborroen berri jakiten du: 2012ko otsailaren 23ko ohiko bilkurakoa eta 2012ko martxoaren 21eko ezohiko bilkura urgentekoa.

Noemi Ostolaza zinegotziak (EAJ) hartzen du hitza eta adierazten du otsailaren 23ko ohiko udalbatzarrean mozio bat onartu zela saharar herriaren aldekoa eta mozioaren 3. puntuan adierazten zela Udalak bat egiten zuela Mendebaldeko Saharako ordezkariak Orioko udaletxean otsailaren 27ko 12:00etan egingo zen ekitaldi batekin. Noemik dio, azkenean, ekitaldi hori otsailaren 27ko 9:00etan egin zela eta azken momentuko ordu-aldaketa hori desegokia iruditzen zaiola, zeren eta, hasierako orduari eutsi izan balitzaio, jende gehiagok parte hartuko baitzuen.

Udalbatzarra jakinaren ganean geratzen da eta, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMABI BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:



**ONARTZEA** udalbatzarraren honako bilkuretako akten zirriborroak: 2012ko otsailaren 23ko ohiko bilkurakoa eta 2012ko martxoaren 21eko ezohiko bilkura urgentekoa.

## **2.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO KULTUR ETXEKO ATEZAIN LANPOSTUAREN LANALDIA ALDATZEA.**

Noemi Ostolaza zinegotziak (EAJ) hartzen du hitza eta bertaratuei proposatzen die gaia mahai gainean uztea, hobeto aztertzeko. Adierazten du gaiari buruz udalbatzarraren bezperan jaso duten posta elektronikoak zalantza handiak sortu dizkiela eta gaia behar bezala argitu nahi dutela. Gaia, hortaz, Pertsonaleko batzorde informatzailera eramatea proposatzen dute, han aztertzeko eta, ondoren, egoki bada, udalbatzarrera berriro ekartzeko.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Noemí Ostolaza zinegotziaren proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMABI BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

**MAHAI GAINEAN UZTEA, ONARTU GABE**, Orioko kultur etxeiko atezain lanpostuaren lanaldiaren aldaketaren gaia, **HARIK ETA** Udaleko Pertsonaleko batzorde informatzaileak gaiari buruzko diktamena eman dezan arte, alde aurretik lanpostu horri izendatutako funtzioak zehatz aztertuta.

## **3.- ADJUDIKATZEA, EGOKI BADA, ORIOKO UDALEKO GAZTERIA DEPARTAMENTUKO AMETSA GAZTELEKUA KUDEATZEKO ZERBITZUAREN LEHIAKETA PUBLIKO BIDEZKO KONTRATAZIOA.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Kontratazioa prozedura irekiz, ohiko tramitazioz eta lehiaketa bidez adjudikatuko da eta lehiaketaren iragarkia 2012ko otsailaren 1ean argitaratu zen 21. zenbakidun Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.

Lehiaketara proposamenak aurkezteko irekitako epean, lehiatzaile bakarra aurkeztu da:

### **1.- TXURRUMUSKI KAE**

Udaleko Kirola, Aisialdia eta Gazteria batzorde informatzaileak, 2012ko martxoaren 15ean egindako bilkuran, honako hau proposatu zuen, aho batez, kirol eta gazterriako teknikariak 2012ko otsailaren 27an egindako txostena aintzat hartuta: Ametsa gaztelekua kudeatzeko zerbitzua adjudikatzea lehiaketara aurkeztu den proposamen bakarraren egileari: TXURRUMUSKI kultur-aisialdi elkarteari.



Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Kirola, Aisialdia eta Gazteria batzorde informatzailearen proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMABI BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

**1.- BALIOZKOTZAT JOTZEA** 2012ko otsailaren 24an egindako plikak irekitzeko ekitaldia.

**2.- BEHIN BETIKOZ ADJUDIKATZEA** Txurrumuski kultur-aisialdi elkarteari Udaleko Gazteria alorreko Ametsa gaztelekua kudeatzeko zerbitzua emateko kontratua. Zerbitzuaren adjudikazio prezioa 37.000 eurokoa da, gastu orokorrak, mozkin industrialak eta BEZa barne.

**3.- JAKINARAZTEA** erabaki hau interesatu guztiei, jakin dezaten eta horren ondorioz joki dezaten, dagozkion lege errekurtsoak azalduz.

**4.- BERRESTEA, EGOKI BADA, ORIOKO ABAROMENDI KALEA 38KO ETXABEKO 2. ZENBAKIDUN MERKATARITZAKO LOKALAREN SALEROSKETAKO ESKRITURA PUBLIKOA, MAIDER SUKIA ETXEBERRIAREKIN SINATUTAKOA, ETA BEÑAT SOLABERRIETA ALBIZU ALKATEARI AHALMEN ZABALA EMATEA ESKRITURA HORI SINATZEKO ORIOKO UDALAREN IZENEAN.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Eskritura publiko hori 2011ko abenduaren 2an eman zen, Zarauzko notario Angel M. Moreno Gallegoren aurrean eta 1149 protokolo-zenbakia du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Hirigintza, Ingurumena, Ogasuna eta Pertsonaleko batzorde informatzaileak 2012ko martxoaren 26an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMABI BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

**1.- BERRESTEA** Orioko Abaromendi kalea 38ko etxabeko 2. zenbakidun merkataritzako lokalaren salerosketako eskritura publikoa, Udalak Maider Sukia Etxeberriarekin sinatutakoa eta Zarauzko notario Angel M. Moreno Gallegoren aurrean emana 2011ko abenduaren 2an, 1149 protokolo-zenbakiarekin.

**2.- AHALMEN ZABALA EMATEA** Beñat Solaberrieta Albizu alkateari eskritura hori sinatzeko Orioko Udalaren izenean, ondoren Jabetza Erregistroan inskribatzeko.

**5.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO ARRAUN ELKARTEAREN UDAL INSTALAZIOAK ARRAUNKETA ETA PIRAGUISMOKO TEKNIFIKAZIO-ZENTRO BAT**



## **INSTALATZEKO HANDITU ETA BERRITZEKO OBRAK EXEKUTATZEKO KONTRATUA ALDATZEKO ESPEDIENTEA.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Obra horiek exekutatzeko kontratua CONSTRUCCIONES AMENABAR SArI adjudikatu zion udalbatzarrak, 2009ko urriaren 27an hartutako erabakiaren bidez.

Udal arkitektoak proiektu aldatuari buruzko txostena egin zuen 2011ko urtarrilaren 17an. Proiektuaren aldaketak interes publikoko arrazoiengatik egin dira, txostenak zerrendatzen diren aurreikusi gabeko behar eta arrazoi hauengatik:

- 1.- Zimenduak indartzea.*
- 2.- Saneamenduaren punpaketa.*
- 3.- Entrenatzeko aretoa.*
- 4.- Instalazioaren gestio integrala.*
- 5.- Pantalana eta beste ekipamendu batzuk tokiz aldatzea.*
- 6.- Egoitza sozialaren aurreinstalazioak.*
- 7.- Balorazio aretoaren aire egokitua.*

*Kreditatuta dago proposatutako aldaketa horren beharra.*

Udalbatzarrak, 2012ko urtarrilaren 30ean egindako ezohiko bilkuran, aipatutako proiektu aldatua onartzea erabaki zuen.

Kontratastari bost eguneko audientzia-epea ezarri zitzaion eta ez zuen alegaziorik aurkeztu.

Aurreko guztia ikusita, espedienteak legedi aplikagarrian ezarritako tramitazioari jarraitu diola kontsideratzen da eta udalbatzarrari dagokio onarpena ematea, bera baita kontratazio-organoa, Toki Araubideko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen eta azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuz onartutako Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren Bigarren Xedapen Gehigarriaren arabera.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, espedienteko agiriak aztertu ondoren, idazkariaren txostena ikusita eta Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren 105., 106., 107., 108., 211., 219. eta 234. artikuluek ezarritakoarekin bat eginez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [Aldeko



botoak: Solaberrieta (Bildu), Agirresarobe (Bildu), Saizar (Bildu), Lasa (Bildu), Dorronsoro (Bildu) eta Iparragirre (Orain), guztira **SEI ALDEKO BOTO**; kontrako botoak: Redondo (EAJ), Ostolaza (EAJ), Del Hoyo (EAJ), Salsamendi (EAJ), Etxeberria (EAJ) eta Cotado (EAJ), guztira **SEI KONTRAKO BOTO**. Berdinketa gertatzen denez, berriro egiten da bozketa, emaitza berbera lortuz; orduan, alkateak bere kalitatezko botoa erabiltzen du, azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 100.2 artikulua ezarritako prozedurari jarraituz]:

**1.- ONARTZEA** Orioko Arraunketa Elkarteko udal instalazioak arraun eta piraguismoko teknifikazio zentro bat bertan instalatzeko handitu eta berritzeko obrak exekutatzeko kontratua aldatzeko espedientea. Proiektuaren aurrekontua 4.311.510,48 eurokoa da (BEZ barne) eta, beraz, proiektuaren hasierako aurrekontuari egin zaion gehikuntza 518.250,93 eurokoa da (BEZ barne).

**2.- JAKINARAZTEA** erabaki hau CONSTRUCCIONES AMENABAR SARI, kontratuaren adjudikaziodunari, eta hitzordua jartzea harekin, kontratuaren aldaketa formalizatzeko. Aldaketaren formalizazioa erabaki hau jakinarazi eta, gehienez ere, hamabost eguneko epean egingo da.

Emandako botoa azaltzeko, Jon Redondo zinegotziak (EAJ) hartzen du hitza eta adierazten du bere talde politikoak kontrako botoa eman duela berriro, udalbatzarraren 2012ko urtarrilaren 30eko ezohiko bilkuran, aipatutako proiektu aldatua onartzeko momentuan, azaldutako arrazoi berberengatik. EAJ ez dago proiektu aldatu hori dagoen horretan onartzearen alde, formari eta mamiari dagozkion arrazoi hauengatik:

- 2011ko uztaileko batzorde informatzailean obra horiek egiteko proiektu aldatuaren aldeko diktamena eman zen eta orain, sei hilabete beranduago, orduko proiektu aldatu hura aldatu egin da berriro, partida edo obra-unitate batzuen kostua murrizteko (guztira, 200.000 euroko murrizketa, guztirako aurrekontuan). Murrizketa horien justifikazioa, gutxienez, diskutigarria da eta, EAJren ustez, obrak behar bezala bukatu gabe geratuko dira horrela.
- Bere talde politikoak faltan bilatzen du Udaleko kirol teknikariaren txosten bat izatea, beren ustez udal arkitektoak baino iritzi oinarrituagoa baitauka gai honi buruz.
- Hortaz, EAJk proposatzen du batzorde informatzaileak 2011ko uztailean diktaminatutako proiektu aldatua bozkatzea.

**6.- BEHIN BETIKOZ ONARTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO KASKO HISTORIKOA BIRGAITZEKO PLAN BEREZIAREN 3. HIRIGINTZA JARDUKETA GARATZEKO**



## HITZARMEN URBANISTIKOAREN ERANSKINA; ERANSKINA LURRA, PROMOCIÓN Y GESTIÓN SL ENTITATE MERKANTILAK AURKEZTU DU UDALAREN AURREAN.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Orioko udalbatzarrak honako erabakiak hartu zituen, besteak beste, 2011ko abenduaren 29an egindako ohiko bilkuran:

*1.- LEHEN ONARPENA EMATEA Orioko Kasko Historikoa Birgaitzeko Plan Bereziaren 3. Hirigintza Jarduketa garatzeko hitzarmen urbanistikoaren eranskinari; eranskina Lurra, Promoción y Gestión SL entitate merkantilak aurkeztu du Udalaren aurrean.*

*2.- Lurzoruaren eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legearen Zazpigarren Xedapen Gehigarriak, 8. atalean, ezarritakoa betez, JENDAURREAN JARTZEA hitzarmen urbanistikoaren eranskinaren eduki osoa, HOGEI LANEGUNEKO epean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita, herritarrek aukera izan dezaten aztertzeko eta alegazioak aurkezteko.*

*Ondoren, udalbatzarrak eman beharko dio behin betiko onarpena, aurkez litezkeen alegazioak onartuz edo atzera botaz.*

Aipatutako espediente urbanistiko hori jendaurrean jarri zen, 2012ko otsailaren 1eko 21. zenbakidun Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutako iragarkiaren bidez. Jendaurreko epea, hortaz, 2012ko otsailaren 2an hasi zen eta otsailaren 29an bukatu zen. Tarte horretan ez zen inolako alegaziorik aurkeztu.

Lurzoruaren eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Euskadiko Legearen zazpigarren xedapen gehigarriaren 8. atalak honela dio: Udalarri dagokio hirigintza-hitzarmenak onartzea. Horretarako, lurralde historikoko aldizkari ofizialean argitaratuko da lehenago osorik, eta jendeaurrean jarriko da, gutxienez 20 eguneko epean, alegazioak aurkeztu ahal izateko.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Hirigintza, Ingurumena, Ogasuna eta Pertsonaleko batzorde informatzaileak 2012ko martxoaren 26an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [Aldeko botoak: Solaberrieta (Bildu), Agirresarobe (Bildu), Saizar (Bildu), Lasa (Bildu), Dorronsoro (Bildu) eta Iparragirre (Orain), guztira **SEI ALDEKO BOTO**; kontrako botoak: Redondo (EAJ), Ostolaza (EAJ), Del Hoyo (EAJ), Salsamendi (EAJ), Etxeberría (EAJ) eta Cotado (EAJ)], guztira **SEI KONTRAKO BOTO**. Berdinketa gertatzen denez, berriro egiten da bozketa, emaitza berbera lortuz; orduan, alkateak bere kalitatezko botoa erabiltzen du, azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 100.2 artikulua ezarritako prozedurari jarraituz]:





**1.- BEHIN BETIKOZ ONARTZEA** Orioko Kasko Historikoa Birgaitzeko Plan Bereziaren 3. Hirigintza Jarduketa garatzeko hitzarmen urbanistikoaren eranskina; eranskina Lurra, Promoción y Gestión SL entitate merkantilak aurkeztu du Udalaren aurrean.

**2.- AHALMEN ZABALA EMATEA** Beñat Solaberrieta Albizu alkateari hitzarmen urbanistikoaren eranskin hori sinatzeko Orioko Udalaren izenean.

Emandako botoa azaltzeko, Jon Redondo zinegotziak (EAJ) hartzen du hitza eta adierazten du bere talde politikoak kontrako botoa eman duela berrero, udalbatzarraren 2011ko abenduaren 29ko ohiko bilkuran, aipatutako hitzarmen urbanistikoaren eranskina onartzeko momentuan, azaldutako arrazoi berberetatik: EAJ ez dago Udalaren gastua 95.588,56 eurotan (BEZ barne) handitzearen alde, bizi dugun krisi egoera larria kontuan hartuta. Bestalde, Jonek dio kritikagarria iruditzen zaiola alkateak kalitatezko botoa berrero erabili izana eta adierazten du 2011-2015 udal-agintaldiaren lehenbiziko zortzi hilabeteotan alkateak gehiagotan erabili duela kalitatezko botoa azken bi agintaldietako (2003-2007 eta 2007-2011) zortzi urteetan baino.

Alkateak hartzen du hitza eta erantzuten dio, esanez oso justifikatuta dagoela kalitatezko botoa erabili izana, aurrez hasita zeuden prozedura administratibo batzuk burutzeko erabili baitu, segurtasun juridikoa babesteko.

## **7.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO UDALEKO KONTRATAZIO MAHAIA OSATZEA, IZAERA IRAUNKORRA IZANGO DUENA BERE ESKUDUNTZAKO KONTRATU GUZTIETARAKO.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Ikusita azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuz onartutako Sektore Publikoko Kontratuen urriaren 30eko 30/2007 Legearen Testu Bateginaren 320. artikulua eta Sektore Publikoko Kontratuen urriaren 30eko 30/2007 Legea partzialki garatzen duen maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretuaren 21. artikulua.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Hirigintza, Ingurumena, Ogasuna eta Pertsonaleko batzorde informatzaileak 2012ko martxoaren 26an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ [guztira HAMABI BAIEZKO BOTO; gehiengo absolutua, beraz]:**

**1.- ONARTZEA** Orioko Udaleko Kontratazio Mahaia osatzea, izaera iraunkorra izango duena bere eskuduntzako kontratu guztietarako. Kontratazio Mahaia honako kideek osatuko dute:



## **Titularrak:**

Presidentea:

- Alkatea: Beñat Solaberrieta Albizu.

Mahaikideak:

- Udaleko idazkari-kontu-hartzailea: Jon Carrera Jauregi

- Udal-arkitektoa: Pilar Azurmendi Etxegarai.

- EAJ talde politikoko zinegotzia: Noemi Ostolaza Arkauz.

- ORAIN talde politikoko zinegotzia: Miriam Uranga Egurza.

Idazkaria:

- Teknikari juridiko aholkularia: Ibai Lertxundi Iribar

Bestelakoak: Kasu bakoitzean, gaiaren arabera beharrezkoak diren langile publiko edo aholkulariei deituko zaie; horiek ahotsa izango dute, baina ez botoa.

## **Ordezkoak:**

Presidentea:

- Alkateak delegatzen duen udalbatzarkidea.

Mahaikideak:

- EAJ talde politikoko zinegotzia: Angel del Hoyo Bravo.

- ORAIN talde politikoko zinegotzia: Jose Angel Iparragirre Alberdi.

Idazkaria:

- Teknikari juridiko aholkulariak delegatzen duen langile publikoa.

**2.- ARGITARATZEA** Kontratazio Mahaiaren osaketa kontratistaren profilean eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.

**3.- ONARTZEA** Kontratazio Mahaiaren funtzionamendu-arauak:

- 1) Mahaiaren bilkurak baliozkoak izateko quoruma honako hau izango da: organo kolegiatueterako Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Prozedura Administratibo Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legeak ezarritakoa.



- 2) Mahaiak bertaratutako boto-eskubidedun kideen gehiengo soiluz hartuko ditu erabakiak eta abstentzioak ez du balio izango.
- 3) Bozketaren batean berdinketa gertatuz gero, berriro egingo da bozketa eta, berriz berdinketa gertatzen bada, presidentearen kalitatezko botoak erabakiko du.
- 4) Mahaiaren bilkurak presidenteak deituko ditu alde zuzenetik.

## **8.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO KALE NAGUSIA 29AN DAUDEN UDAL JABETZAPEKO BI ETXEBIZITZEN SALEROSKETA ETA ALKATEARI AHALMEN ZABALA EMATEA SALEROSKETAKO DOKUMENTU PRIBATUAK ETA ESKRITURA PUBLIKOAK SINATZEKO, ORIOKO UDALAREN IZENEAN.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Hirigintza, Ingurumena, Ogasuna eta Pertsonaleko batzorde informatzaileak 2012ko martxoaren 26an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMABI BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

**ONARTZEA** Orioko Kale Nagusia 29an dauden udal jabetzapeko bi etxebizitzetako salerosketa eta alkateari **AHALMEN ZABALA** ematea salerosketako dokumentu pribatuak eta eskritura publikoak sinatzeko, Orioko Udalaren izenean.

## **9.- ONARTZEA, EGOKI BADA, BALDINTZA EKONOMIKO-ADMINISTRATIBOEN ORRIA ETA BALDINTZA TEKNIKOEN ORRIA, ORIOKO ARRAUNKETAKO ETA PIRAGUISMOKO TEKNIFIKAZIO-ZENTROAREN HORNIDURA KONTRATATZEKO: SARREREN KONTROLA, INTRUSOEN DETEKZIOA, TELEBISTA-ZIRKUITU ITXIA ETA MEGAFONIA.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Kirola, Aisialdia eta Gazteria batzorde informatzaileak 2012ko martxoaren 15ean emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMABI BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

**1.- ONARTZEA** baldintza ekonomiko-administratiboen orria eta baldintza teknikoaren orria, Orioko Arraunketako eta Piraguismoko teknifikazio-zentroaren hornidura kontratatzeke: sarreraren kontrola, intrusoen detekzioa, telebista-zirkuitu itxia eta megafonia.



**2.-** Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testuategina onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren 142. artikuluan ezarritakoaren arabera, baldintza orrien laburpen hau argitaratzen da:

**1.- Erakunde adjudikatzailea.**

a) Erakundea: Oriko Udala.

b) Espedientea tramitatzen duen bulegoa: Idazkaritza-kontu-hartzailetza

**2.- Kontratuaren xedea.**

a) Xedearen deskribapena: Oriko Arraunketako eta Piraguismoko teknifikazio-zentroaren hornidura eta instalazioa: sarreraren kontrola, intrusoen detekzioa, telebista-zirkuitu itxia eta megafonia, baldintza teknikoen eta baldintza juridiko eta ekonomiko-administratiboaren arabera.

b) Epea: Bi hilabete.

**3.- Tramitazioa, prozedura eta adjudikatzeko era.**

a) Tramitazioa: Ohikoa.

b) Prozedura: Irekia.

c) Era: Lehiaketa.

**4.- Lizitazioaren kopurua.**

99.344,20 euro (BEZa barne). Lizitatzailerik aukera izango dute kopuru hori hobetzeko.

**5.- Bermeak.**

Behin betikoa: Adjudikazioaren zenbatekoaren %5 (BEZa aparte).

**6.- Iragarki gastuak.**

Adjudikaziodunaren kontu eta kargura izango dira.

**7.- Dokumentazioa lortzeko.**

Espedienteko dokumentazioa interesatuen eskura egongo da Oriko Udalaren Kontratataren Profilean ([www.oriok.com](http://www.oriok.com)).

**8.- Proposamenak aurkeztea.**



- a) Epea: Hamabost lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.
- b) Aurkeztu beharreko dokumentazioa: Baldintza-orrian zehaztutakoa.
- c) Tokia: Udaletxeko idazkaritza-kontu-hartzaitza. Herriko Plaza, 1 20810 ORIO.
- d) Ordutegia: Astelehenetik ostiralera: 8:30etik 14:30era.

## 9.- Proposamenen irekiera.

- a) Tokia: Oriko udaletxea
- b) Data: Proposamenak aurkezteko epea bukatu eta laugarren lanegunean; egun hori laneguna ez den batekin egokitzen bada, data hurrengo lanegunera pasako da (bigarren gutunazala).
- c) Ordua: 12:00etan.

## 10.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ORIO ETA IGELDO-DONOSTIA ARTEKO ERREPIDEAN EZPONDAK BERRITZEKO OBRAK EXEKUTATZEKO PROIEKTU TEKNIKOA ETA OBRA HORIEK PUBLIZITATERIK GABEKO PROZEDURA NEGOZIATU BIDEZ KONTRATATZEKO BALDINTZA ADMINISTRATIBO PARTIKULARREN ORRIA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren ganean geratzen da eta, Hirigintza, Ingurumena, Ogasuna eta Pertsonaleko batzorde informatzaileak 2012ko martxoaren 26an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMABI BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

**1.- ONARTZEA** Orio eta Igeldo-Donostia arteko errepidean ezpondak berritzeo obrak exekutatzeko proiektu teknikoa. Proiektua Miguel Angel Otero Barreiro eta Carlos Marauri Chasco bide, ubide eta portuetako ingeniariak idatzi dute, GIRDERINGENIEROS SL entitate merkantilaren izenean eta lizitazioaren oinarritzko aurrekontua 199.922,66 eurokoa da (BEZ barne).

**2.- ONARTZEA** obra horiek publizitaterik gabeko prozedura negoziatu bidez kontratatzeo baldintza administratibo partikularren orria.



## **11.- BAT EGITEA, EGOKI BADA, UROLA KOSTAKO UDAL ELKARTEAREN ZUZENDARITZA BATZORDEAK 2012KO MARTXOAREN 13AN EGINDAKO OHIKO BILKURAN ONARTUTAKO HIZKUNTZ POLITIKA OROKORRAREKIN.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Urola-Kostako Udal Elkartearen Zuzendaritza Batzordeak onartutako hizkuntz politika orokorrak honela dio, hitzez hitz:

*Aia, Getaria, Orio, Zarautz eta Zumaiako udalek eta udal horiek osatzen duten Urola Kostako Udal Elkarteak honako hizkuntza politika orokor hau onartzen dugu:*

*1.- Euskara da gure udalerrietako berezko hizkuntza.*

*2.- Administrazio publiko gisa, gure egitekoa da euskararen erabilera normalizatzea, euskaldunen hizkuntza eskubideak bermatzea eta hurrengo belaunaldiei eskaintzea.*

*3.- Udal zerbitzuetan euskararen erabilera normalizazteaz gain, geure egiten dugu gure lurralde eremuan alor guztietan euskararen erabilera normalizatzeko helburua. Hori lortzeko erabaki eta irizpide bateratuekin jokatu da.*

*4.- Udalen eta Udal Elkartearen zerbitzu eta lan hizkuntza euskara izango da, bai ahoz, bai idatziz.*

*5.- Herritarrei lehen hitza euskaraz egingo zaie eta beraiek hizkuntza aldatzen badute, orduan, beraiek aukeratutako hizkuntzan erantzungo zaie. Modu berean, hartzaile jakinik gabeko argitalpen, errotulu, eta udalen mezuak ere, ahal dela, euskara hutsean egingo dira. Bestela, euskara lehenetsiko da.*

*6.- Udalen eta Udal Elkartearen arteko harremanak (ahoz nahiz idatziz) euskaraz izango dira eta Euskal Herrian kokatuta dauden administrazioekiko harremanak, ahozkoak nahiz idatzizkoak, euskara hutsean izatera joko da, Era berean, enpresekin, hornitzaileekin eta udalentsat lan egiten duten gainerako sozietateekin ere, harremanak euskara hutsezkoak izatera joko da.*

*7.- Udaletan nahiz Udal Elkartean egiten diren langileen kontratazioetan, lanpostuari dagokion hizkuntza eskakizuna egiaztatu beharko du langileak.*

*8.- Udaletan nahiz Udal Elkartean egiten diren era guztietako kontratazioetan hizkuntza baldintzak ezarri eta betearaziko dira; gauza bera egingo da elkarteei ematen zaizkien era guztietako diru-laguntzetan ere.*

*9.- Jendaurreko ekitaldietan euskara erabiliko dugu, eta ele bitan izan behar duten kasuetan, euskara lehenetsiko dugu.*



10.- *Hizkuntza politika orokor hau garatzeko udal bakoitzak eta Udal Elkarteak hizkuntza irizpide zehatzak landu, onartu eta moldatuko dituzte.*

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMABI BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

**BAT EGITEA** Urola Kostako Udal Elkartearen Zuzendaritza Batzordeak 2012ko martxoaren 13an egindako ohiko bilkuran onartutako hizkuntz politika orokorrarekin, goian jasota dagoen bezalaxe.

## **12.- BATERAGUNE EPAIKETARI BURUZKO DAGOZKION ERABAKIAK HARTZEA, EGOKI BADA, BILDU UDAL TALDE POLITIKOAK GAIARI BURUZ EGIN DITUEN ESKARIEN HARITIK.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Bilduren idatziak honela dio, hitzez hitz:

### *BATERAGUNE AUZIAREN AURREAN*

*Datorren martxoaren 28an, Auzitegi Gorenak Bateragune auziaren helegitea aztertuko du Madrilen. Arnaldo Otegi, Rafa Diez, Miren Zabaleta, Arkaitz Rodriguez eta Sonia Jacinto hamar eta zortzi urtetako kartzela zigorrera kondenatu zituen Entzutegi Nazionalak ETAkoak izatearen akusaziopean.*

*Euskal Herrian aldaketa politiko sakonak bizi izan ditugu azken hilabeteetan. Hamarkadak iraun dituen ziklo armatua atzean utzi eta bide politiko eta demokratikoetan sakonduz etorkizun aske bat eraikitzea da herri honek desio eta erabaki duena. Atzeraezina den bide hori abian da.*

*Garai berri hauek abiarazten, zuzeneko inplikazioa izan zuten gaur egunean kartzelan dauden bost kide hauek. Herri hau, demokrazia eta bakea garatuz eta herritarren borondatea oinarritzat hartuz, eraiki behar dela aldarrikatzea da beraien jardueraren xedea. Lan politikoa egiteagatik izan ziren atxilotuak, ziklo aldaketa ekarri duen lan politikoari ekiteagatik hain zuzen ere.*

*Ez euskal herritarren gehiengoak, ez eta nazioarteko iritzi publikoak ere, ez du ulertzen eta onartzen, Bateragune auzian kondenatutako bost euskal herritar hauek kartzelan izaterik. Ez du onartzen, sortu den egoera berri honen aurrean, espainiar estatuak urrats positiborik eman gabe gelditzerik*

*Hau guztia kontutan izanik, honako erabaki hau hartzen da:*

*Udal honek, herritarren gehiengoaren eskaera kontuan hartuz, Bateragune auzian Entzutegi Nazionalak emandako ebazpena bertan behera utzi eta Arnaldo Otegi,*



*Rafa Diez, Miren Zabaleta, Arkaitz Rodriguez eta Sonia Jacinto aske uzteko eskaria egiten du.*

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMABI BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

Udal honek, herritarren gehiengoaren eskaera kontuan hartuz, Bateragune auzian Entzutegi Nazionalak emandako ebazpena bertan behera utzi eta Arnaldo Otegi, Rafa Diez, Miren Zabaleta, Arkaitz Rodriguez eta Sonia Jacinto aske uzteko **ESKARIA EGITEN DU**.

### **13.- BAT EGITEA, EGOKI BADA, NAFARROA BIZIRIK ORION TALDEAK NAFARROAKO KONKISTARI BURUZ (1512-2012) AURKEZTU DUEN ADIERAZPENAREKIN.**

Udalbatzarrak NAFARROA BIZIRIK ORION TALDEAK aurkeztu duen idatziaren berri jakiten du. Idatziak honela dio, hitzez hitz:

#### ***1512-2012 Nafarroaren konkista***

*Gertu dago armada gaztelar eta aragoarrek Nafarroako Erreinua konkistatu zuteneko bostehungarren urtemuga. Espainia zabalkunde garaia bizitzen ari zen lurraldeari zegokiola. 1512ko uztail hartan, haien Armadak Nafarroaren bihotza inbaditu zuten, mende batzuk lehenago bere mendebaldeko lurraldeekin egin zuten bezala. Gertakari horien ondorioz, Herri oso batek galduko zuen bere subiranotasuna.*

*Nafarroa herri askea zen, erregea, gorteak, kontseilua eta armada zituen, baita European enbaxadoreak ere. Gainera bere gortea garaiko kulturaren gune garrantzitsua izan zen. Herri txikia, baina Pirinioetako bi aldeetan estrategikoki kokatua bera, Espainia (orduko Gaztela eta Aragoi) eta Frantzia bizilagunek berau desio zuten. Bizilagun hauek agramondar eta beaumontarren arteko borroka sustatu zituzten eta ondorioz, herriak lur joarazi zituzten.*

*Hain justu nafar erregeek gerra zibil horiei bukaera eman zietenean, Fernando Katolikoak, 1476an jada nafar Erreinuarekiko bere eskubide-asmo sendoa erakutsia baitzen, inbasioa agindu zuen.*

*Espainiar armada, Albako Dukearen agintepean, su eta gar sartu zen eta Luis Correak idatzitako konkistaren gaineko historian Villalva Koronelaren hitzetan jarria da armada inbaditzaileak erabili zuen basakeria: "herriak erre ziren, ehunka*





*nafarrek alde egin zuen, emakumeak bortxatu zituzten, ondasunak konfiskatu zituzten, erbesteratzeak izan ziren, exekuzioak...*

*Gazteluak suntsitu ziren, nafarrentzat bakarrik izan zitezkeen karguetan espainolak sartu ziren. Herriek okupazio-armadaren gastuak ordaintzen zituzten "gerra gastuak" bailiran. Okupazio militarrek 100 urte iraun zuen, eta gaur arte luzatu da.*

*Hala ere, mende luze hartan gaztelarren kontrako konspirazioak ere izan ziren eta hauei erregeordeek "euren lurraren aurkako erreboltariak" deitzen zieten; erregeorde hauek espainiar Gorteari txostenak bidaltzen zizkioten "nafarren frantses egiteko nahiaz" eta "hala egiten ez badira armadak galarazten duelako da". Felipe II.ak berak gotorlekuak eraikitzeko agindua eman zuen (Iruñeko harresi eta gotorlekua) "nafarrak eusteko" eta erresistentzia izan zela eta, Biltzaileak herriz herri ibili ziren "jende alferra, iheslaria eta estaltzailea".*

*Honela, konkista eta ondorengo garaia gogorra izan zen, kezka handikoa, eta ez baketsua. Honek kontraesanean jartzen du "berdinen arteko hitzarmena" izan zela dioen bertsioa, "bat egite zorientzua" asmo txarreko interpretazio historikoa da, azken batean, egungo Nafarroaren egoera legezkozat eman nahi baitu.*

*Okupazioari erresistentzia etengabekoa izan zen; egitandi gogoangarriak izan zirelarik, Amaiur defendatu zutenena kasu. Honez gain, geroztik eta egun arte herri honen estatusaren hondaketa-prozesuak aitzina segitu du, probintzia bihurtzeraino eta egun, Autonomia Erkidego, ia-ia Nafarroa izena desagerraraziz.*

*Gaur, Nafarroa Espainiara libreki bildu zela dioen faltsukeriaren aitzinean, 2012an Espainia Nafarroa Garaia konkistatzen hasi zela 500 urte beteko direla gogora ekarri nahi dugu, data hura giltzarri izan zen gure estatua indarrez hondorazteko. 1512-2012 Nafarroa Bizirik ekimeneko emakumezkook, gizonezkook eta taldeok gure mendeetako ibilaldia erakutsi nahi dugu eta kendu ziguten hura berreskuratzeko eskubidea dugula garbi adierazi; burujabetza galdu izana gure herriarentzat galbidea izan da.*

*Gauzak honela, 1512ko konkista XVI. mendean oraino askeak ziren nafar lurraldeen inbasio bortitzaren emaitza izan zela, eta, ondorioz, gure herria Espainiaren eta Frantziaren menpe gelditu zen, nafar jendearen borondatearen aurka.*

*Historiak independente izan ginela erakusten digu, eta izateari utzi geniola, ez gure arbasoen nahiaz, baizik eta espainiar eta frantses nahikeria dela eta. Eta, hain zuzen ere, gure interes nagusia ez baita iraganean, orainean eta geroan baino, memoria historikoa berreskuratu nahi dugu askatasunerantz pausoa emateko eta gure eskubideak defendatzeko.*



*Ziur gara nafar gehienek ez dutela orain bost mende gertatua ezagutzen. Ezagutuko balute, egungo errealitatearekiko beste jokaera bat biziko genuke.*

*1512 hartatik ia bostehun urte joan dira, baina Nafarroa bizirik da, Obanosko Infantzoien aldarria gaurkoa ere bada, indarrean da:*

*PRO LIBERTATE PATRIA, GENS LIBERA STATE*

*1512-2012 Nafarroa bizirik!*

*NAFARROA BIZIRIK ORION taldeak deialdia egiten die norbanako eta erakundeei adierazpen honi atxikimendua eman diezaioten*

*Nafarroako herriak, bere historia ezagutu eta berrikusteko abagunea izan duelarik, honako adierazpena egin nahi du:*

*- Hain hurbil dugun 2012an, Albako dukearen tropek Nafarroa inbaditu zutela 500 urte beteko direnean, erakunde ofizialek data hori egungo oparotasun eta etorkizuneko zorientasunaren oinarri gisa ospatu nahi dute.*

*- Historia desitxuratu eta memoria historikoa manipulatu dute, konkista gerra hura isilarazi eta itunaren eta nafarren borondatezko bat egitearen ideia zabaltzeko asmoz. Bortxazko kolonizazio hari duintasun plantak eman nahi izan dizkiote, Espainiaren sorreraren giltzarri gisa aurkeztuz, eta ekintza gogoangarri eta beharrezkoa izan zela sinestarazi nahi digute.*

*- Baina Nafarroa aske zen Gaztela historian agertu baino askoz lehenago. Baskoiek nafar Estatua, aurretik Iruñeko erreinua zena, eratu zuten IX. mendeaz geroztik, elkarbizitza eta babesa bermatzeko. Bertan kultura eta lana garatu zituzten, eta elkarbizitza hori arautzeko errege edo jauntxoaren agintearen ginetik zeuden erakundez eta gazteluz hornitu zuten.*

*- Pirinioetako kulturen sustraiturik, parekorik ez zuen Estatua sortu zen, Santiago matamorosen Espainiarekin zerikusirik ez zuena. Estatu honek foruak, eskubideak eta erregearen boterearekiko kontrola bermatzen zituen; eta gerra gurtu gabe, nafarrek eraso egiten zietenean soilik hartzen zituzten armak.*

*- Horregatik, honakoa adierazi nahi dugu: gure nortasuna euskalduna dela, gure hizkuntza eta kultura bezala, eta euskaldun gisa, gure presentzia mundu zabalean nafar Estatuaren bitartez bakarrik gauzatu dela.*

*- Gerra eta biolentzia besterik ez daudela gu Espainian borondatez sartze horren jatorrian. Gerrak, kolonizazioak eta biolentziak zapuztu dutela gure nortasunaren garapen askea, eta indarrez kendu ziguten Nafarroa haren pareko naziotasun askea aldarrikatzen dugula nazioartean.*



- Gure herrien jatorri faltsua eta espainiar zaletasuna ukatzen dugu, herri hauek biztanleriaren lanaren emaitza direlako, eta ez inbaditzen gaituzten indarra. Horregatik, gaztelarren konkista salatzen dugu, hori baita gaur egun ditugun hainbat arazo eta gatazken erantzulea.

- Argi eta irmoki adierazi nahi dugu gure herriaren jatorria gure lurraldean dagoela, eta herri hau Nafarroaren inguruan antolatu zela, erreinuaren independentzia eta subiranotasunaren bermatzaile zen aldetik.

- Eta deialdia egiten dugu datorren uztailaren 25ean, Albako dukea Iruñean sartu zen egunean, herri eta Udalek Nafarroako banderetan xingola beltza jartzeko edo bandera haga erdian jartzeko, dolu seinale moduan.

1. Udal honek bat egiten du "1512-2012" Agiriarekin zein 1512ko konkistaren bosgarren mendeurrena gogorarazteko abiatuko diren ekimenekin. Bere ahale arabera, laguntza eskainiko die.

2. Udal honek bat egiten du Nafarroaren istorioa ezagutu eta berrikusteko adierazpenaren 9 puntuekin.

Udalbatzarra jakinaren ganean geratzen da eta, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMABI BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

**BAT EGITEA** NAFARROA BIZIRIK ORION TALDEAK Nafarroako konkistari buruz (1512-2012) aurkeztu duen adierazpenarekin, goian jasota dagoen bezalaxe.

## **14.- DAGOZKION ERABAKIAK HARTZEA, EGOKI BADA, 2012KO APIRILAREN 8AN EGINGO DEN ABERRI EGUNA DELA-ETA, ORAIN UDAL TALDE POLITIKOAK GAIARI BURUZ EGIN DITUEN ESKARIEN HARITIK.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Orain udal talde politikoak aurkeztu duen idatziak honela dio, hitzez hitz:

### **2012ko Aberri Eguna apirilaren 8an ospatuko da**

2012ko apirilaren 8an Aberri Eguna ospatuko da Euskal Herrian. 1932an hasi zen ospakizunak ostopoz josita egin du bere ibilbidea. Garai berri eta itxaropentsu hauetan, gure nortasuna eta izaera indarberritzeko aproposak direlakoan, erabakitze eskubidea gauzatzeko herritarrek beraien aldarriak azalarazi dezaten eskatzea dagokigu.

Horrela, Orioko Udaleko udalbatzarrak jarraian agertzen diren puntuak onartzea eta herritarrei horien berri ematea eskatzen da:



1.-Herritar bakoitzak, bere etxeko kanpoaldean, ikurrina jar dezala.

2.- Udalak, udaletxeko balkoian, ikurrina jar dezala.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMABI BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

**ONARTZEA** 2012ko apirilaren 8an egingo den Aberri Eguna dela-eta, Orain udal talde politikoak gaiari buruz egin dituen eskariak, goian jasota dauden bezalaxe.

## **15.- ESKARIAK ETA GALDERAK.**

Ez ziren izan.

Horrenbestez, udalbatzarrera bertaratutako pertsonetako batzuek hitza hartu ondoren, alkate-presidenteak bilkurari amaiera ematen dio eta, erabakitakoa jasota gera dadin, nik, idazkaria naizenez, akta hau egiten dut alkatearen ontzat emanarekin.

**ALKATE-PRESIDENTEA,**

**IDAZKARIA,**